



UNITATE DIDAKTIKOAREN GIDOIA



PELIKULA IKUSTERA JOAN AURRETIK IRAKASLEAK EGITEKO LANA

Fitxa teknikoa

Sinopsia

Proposamen
didaktiko hau
lantzeko aholku
metodologikoak



PELIKULA IKUSTERA JOAN AURRETIK IKASLEEKIN EGITEKO LANA

Filmaren azala eta
izenburutik abiatuta
elkarriketarako gida

Zinemaren garapena
eta animazio motei
buruz aipamenak

Haurren Eskubideen
Hitzarmen Unibertsalari
errepasoa



PELIKULA IKUSI ONDOREN IKASGELAN EGITEKO LANA

Pelikula hitz batean

Pertsonaien deskribapena

Gidoiari buruz

Elkarriкета sustatzeko
proposamenak:
Laguntasuna / Familia

Ariketa: Amaiera
desberdinak

Ariketa: Haurren
Eskubideen Hitzarmen
Unibertsala



**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IRAKASLEAK
EGITEKO LANA**

FITXA TEKNIKOA

Jatorrizko izenburua: Ma vie de Courgette

Herrialdea: Suitza eta Frantzia

Produktora: Rita Productions, Blue Productions, Gebeka Films, KNM

Produktoreak: Max Karli, Pauline Gyax, Armelle Glorennec, Eric Jacquot, Marc Bonny, Kate Merkt, Michel Merkt, Théo Ciret

Zuzendaria: Claude Barras

Gidoia: Céline Shiamma

Urtea: 2016

Iraupena: 66 minutu

Musika: Sophie Hunger

Soinua: Kim Keukeleire

Muntaia: Valentin Rotelli

Animazioa: Kim Keukeleire, Marcos Valin, Daniel Ramsay, Cesar Diaz Melendes, Marjolaine Parot, Brian Leif Hansen, Antony Elworthy, Juan Soto

Hizkuntza: Jatorrizko bertsiola frantsesez gaztelera eta euskarazko azpi tituluekin / katalanera bikoiztua

SINOPSIA

Courgette 9 urteko haurra da. Amaren bat-bateko heriotzaren ostean, Raymond izeneko poliziak harrera-etxe batera eramango du berak bezain bizitza gogorra izan duten adin bereko beste ume batzuen artera bizitzera. Hasieran, Courgetteri kosta egingo zaio ingurune arrotz eta zenbaitetan zakar horretara moldatzea, baina pixkanaka mundu berri bat topatu eta benetako familia bat eraikitzeke gai izango da lagun berri hauen alboan. Luzemetraia Gilles Parisen *Autobiographie d'une Courgette* nobelan oinarritua dago.

**PROPOSAMEN DIDAKTIKO HAU LANTZEKO
AHOLKU METODOLOGIKOAK**

Proposatzen dugun eredu metodologikoak gaitasun intelektuala eta kontzientzia soziala garatzea du oinarri. Ikaslearen ezagutza, sinesmenak, aurreiritziak eta izandako bizipenak izango dira abiapuntu, modu horretan, haien interes eta beharrek konektatuko baitugu, baina urrats bat gehiago ere emango dugu: ikaskuntza berriak barneratu. Aurrera pausu horiek ikasleek beraiek egingo dituzte taldean elkarrekin ikertuz, eta horixe izango da, hain zuzen, programa honen ezaugarri adierazgarriena, irakasleak ez baitie ezagutza zehatzik irakatsiko. Elkarrekin hausnartu, pentsatu eta hitz egin beharko dute taldearen ondorioak formulatu eta osatzeko. Irakaslearen lana taldea bideratzea izango da, elkarriketa horiek gerta daitezen beharrezko baldintzak ahalbideratzea.



**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IRAKASLEAK
EGITEKO LANA**

Horretarako, honako orrialde hauetan, hainbat baliabide eskaintzen ditugu ikasgelan elkarriketa parte-hartzailea eragiteko, eta zenbait galdera irakasleak elkarriketa sustatzeko eta gidatzeko baliabideak ditzan. Esan beharrik ez dago, irakasle bakoitzak erabakiko duela horietako zein erabili, zein ez edota baten bat erantsi nahi ote duen. Jarduera errazteko galderen zerrenda bat aurkezten dizuegu, ikasgelan elkarriketa arakatzailerak sustatzeko baliagarri gerta daitekeena:

ARAKATU

Nola jakin dezakegu...?
Nola bila dezakegu...?

HIPOTESIAK FORMULATU

Zer azalpen izan dezake honako honek?
Zer gertatuko litzateke baldin eta...?

BESTE BIDE BATZUK BILATU

Zer beste modutan azal dezakegu...?
Zeini bururatzen zaio beste konponbide bat?

DEFINITU

Hitz hori erabiltzen duzunean, zer esan nahi duzu?

PAREKOTASUNAK ETA DESBERDINTASUNAK BILATU

Zer dute amankomunean...?

SAILKATU

Zenbat modutan sailka dezakegu?

ARRAZOIAK ESKATU

Zer arrazoi duzu honako hori esateko?

ONDORIOAK ATERA

Baieztape hori egia bada, zer ondoriozta dezakegu?

KAUSAK ETA ONDORIOAK ERLAZIONATU

Hori gertatzen denean, zein dira ondorioak?

HITZEZKOA EZ DEN HIZKUNTZATIK HITZEZKORA ITZULI

Zer adierazi nahi du keinu horrek?

LABURTU

Hitz gutxitan azal dezakezu...?

Metodologia-proposamen zehatz honek elkarriketa du oinarri beraz, azken batean, etika biziaren trebakuntza bat da. Bizikidetzarako, pertsonen arteko errespeturako eta garapen intelektualerako beharrezko prozedurak eta jarrerak martxan jarri daitezke elkarriketaren bidez; beste pertsonaren iritzia eta hitz egiteko txanda errespetatzen dugu, eta entzuteko gaitasuna eta pazientzia trebatzen ditugu; gure iritzia argudiatzen eta gure kideek zer pentsatzen duten hobeto eta sakonago ikasten dugu (modu honetan errazago zaigu haiek ulertzea eta haiekiko enpatia izatea).



**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IKASLEEKIN
EGITEKO LANA**



FILMAREN AZALA ETA IZENBURUTIK ABIATUTA ELKARRIZKETARAKO GIDA

“Ma Vie En Courgette” Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldian ipiniko dute eta bertara joango gara filma ikustera. Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Sailak eta Donostia Kulturak antolatzen dute jaialdia.

- 1. Nor da pelikulako zuzendaria?**
- 2. Zer adierazten du izenburuak?**
- 3. Zer esaten digu pelikularen azaleko ilustrazioak eta irudiaren eta izenburuaren kokapenak?**
Zer informazio ematen digute hizkiek (koloreek, formak, itxurak...)?
Nori esango zenukete dagoela zuzendua?
- 4. Filmaren edukiari buruz hipotesiren bat egin dezakegu hemendik abiatuta?**
Zer istorio mota kontatuko da?



**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IKASLEEKIN
EGITEKO LANA**



**ZINEMAREN GARAPENA ETA
ANIMAZIO MOTEI BURUZ AIPAMEN BATZUK**

1. Ikus dezagun lehenengo **bideo hau** animazio zinemaren garapena ulertzeko.

2. Historia pixka bat:

Animazio zinemaren hastapenak **zinemaren historia** berarekin bat egiten dute. Teknika hau dagoeneko ezaguna zen XIX. mende bukaeran eta **Georges Méliès**ek erabili zuen lehen aldiz 1896an: *Viaje a la luna*.

Segundo de Chomón espainiarra izan zen teknika hau erabiltzen aitzindarietako bat, *La casa encantada* (1906) eta *El hotel eléctrico* (1908) filmetan erabili zuen.

Ladislaw Starewicz, zinemagile errusiarrak, **1912**an *La venganza del camarógrafo* pelikula egin zuen.

Stop motion delakoa, pixkanaka hobetuz joan zen besteak beste Willis O'Brien-en eskutik *King Kong und die weisse Frau* (1933) filmean.

Ray Harryhausen, bere ikaslea izan zen eta 50. hamarkadan teknika aberastu zuen, beranduago, 80. hamarkadan, *Terminator*, *Star Wars* (IV. ataletik VI. atalera) edo *Furia de Titanes* bezalako filmetan erabiliko zena.

Hamarkada horretan, stop motion-a **Tim Burton**-ek erabili zuen **Walt Disney**-en estudioetan **animatzaile** bezala lan egiten zuenean, **1982**an, *Beetlejuice* (1988) eta *Corpse Bride* (*La Novia Cadáver*, 2005) bezalako pelikulak zuzentzen hasi zen arte.

Aardman Animations produktorearen beste ekoizpen handi batzuk dira *Wallace and Gromit* eta *Chicken Run*.

3. **Irakurri** ditzagun animazio zinema mota desberdinen laburpenak eta **ikus** ditzagun dagozkien bideoak irudikatu duguna ikusten dugunarekin bat datorren jakiteko (*lehenengo hiruak gutxienez ikustea aholkatzen dizuegu*).

A.

Marrazki
bizidunak

B.

Stop
motion

C.

Go
motion

D.

Rotoskopia

E.

Paper edo beste
material batzuen
zatiekin egindako
animazioa

F.

Beste teknika
batzuk

Bigarren
Hezkuntzako
1go ziklotik
aurrera
+12 urte



2

**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IKASLEEKIN
EGITEKO LANA**



A.

Marrazki
bizidunak

2D edo ohiko animazio bezala ezagutzen dira ere eta **karratu bakoitza marraztuz sortzen dira**. Argazki sekuentzia bisual bat da eta bera osatzen duten fotograma guztiak eskuz margotuz lortzen da. Honek mugimenduan dauden irudien pelikula sortzen du.



B.

Stop
motion

Geldi dauden objektuen mugimendua simulatzen du, argazkiz-argazki mugimenduaren irudipena harrapatuz.

Teknika hau eskuzko animazio bezala ezagutu zitekeen objektua eskuekin lantzen delako (fotogramaz fotograma) azken proiektzioan bere kabuz mugitzea lortzen den arte. Bi stop-motion animazio nagusi daude: plastilina / txotxongilo / latex panpinen... animazioak eta objektuen animazioa.

C.

Go
motion

Kasu honetan modelo edo objektuari mugimendua eragiten zaio argazkiak ateratzen zaizkion bitartean. Go motion teknikarekin, objektu edo modelo bizidunen mugimendu irudipenak benetakoa dirudi eszena pantailan ikusten dugunean.






2

**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IKASLEEKIN
EGITEKO LANA**

D.

Rotoskopia



Aurretik filmatutako erreferentzia baten gainean marraztean lortzen da. Pertsona erreal bat grabatu eta fotograma horiek animatzailearen mahaigainean proiektatzen dira. Bertan argazkiak (erreferentziatzako irudi bezala) berriro marrazten dira pertsonaiaren mugimendu erreala nolakoak izango lirakeen pentsatuz. **Walt Disney-k ezagutarazi zuen teknika hau *Edurnezuri eta zazpi ipotxak*** luzemetraiaren hainbat pasartetan.

E.

Paper edo beste material batzuen zatiekin egindako animazioa

Paperetik, kartoitik edo argazkietatik moztutako irudiak erabili daitezke.

Pertsonaien gorputzak eraiki egiten dira (mugitu daitezkeen atalak moztuz) eta animatzaileak atal desberdinen kokapena aldatzen du pertsonaiari bizia emanez.




F.

Beste teknika batzuk

Hemen sartzen dira ekintza estatiko baten bidez mugimenduan dauden irudiak sortzeko modu guztiak, hau da, material bati argazkiak atera eta argazki horiekin animazio bat sortzea.

Pertsona gutxi batzuk erabili dituzten animazio teknika asko **daude. Ondorengoak dira ezagunenak:** Area erabiliz sortutakoa, kristalen gaineko margoa, jostorratzak, zeluloidearen gaineko margoa, ur tantak, graffitiak, kakahueteak, txigortutako ogia....





**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IKASLEEKIN
EGITEKO LANA**

**HAURREN ESKUBIDEEN HITZARMEN
UNIBERTSALARI ERREPASOA**

Zinemaldiaren egitarauan urteko giza eskubideekin lotutako labur eta luzemetrai batzuk biltzen dira. Helburua, hiritarren artean bake eta bizikidetzaren kultura zabaltzea da tolerantziaren, elkartasunaren, errespetuaren, aniztasunaren eta gizarte kohesioaren pedagogia eginaz.

Garrantzitsua da neska-mutilak jabetzea Giza Eskubideak ezinbestekoak direla komunitate eta pertsonen arteko harreman egonkorak eta orekatuak finkatzeko eta honetarako derrigorrezkoa da hauen ezagutza izatea. Ariketa honetan Haurren Eskubideen Hitzarmenaren artikulua errepasatuko ditugu eta ikasleei pelikulak zer eskubide edo eskubideei buruz hitz egiten duen pentsatzeko enkargua emango diegu.

Ariketa hau taxutzeko garaian, 1959ko Haurren Eskubideen Hitzarmeneko hamar artikulua erabiltzea erabaki dugu, eta ez 1989ko Konbentzioa. Egia da azken horrek hainbat alderdi juridiko eransten dizkiola Hitzarmenari eta Konbentzio izate hutsak herrialde sinatzaileak idatzitakoa errespetatzera behartzen dituela. Baina Hitzarmeneko formulazio sinpleek, hau da, hamar artikulua edo printzipiotan laburtuta egoteak errazagoa bilakatzen du edukiak gogoan hartzea eta Konbentzioan jasotzen diren zenbaki eta kontzeptuetan ez galtzea. Azken batean, printzipioen Hitzarmen hutsa izatetik estatuen inplikazioa eskuratzea izan da Konbentzioaren aurrera pausua.





**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IKASLEEKIN
EGITEKO LANA**

HAURREN ESKUBIDEEN HITZARMEN UNIBERTSALA

1 Haurrak Hitzarmen honetan adierazitako eskubide guztiak izango ditu. Haur guztiei aitortuko zaizkie, salbuespenik gabe; ez da bereizketarik edo bazterketarik egingo haurren edo haren familiaren arraza, kolore, sexu, hizkuntza, erlijio, iritzi politiko edo bestelako, jatorri sozial edo nazional, posizio ekonomiko, jaiotza edo bestelako arrazoiren batengatik.

Haurrak babes berezia jasoko du, eta aukera eta zerbitzuak eskura izango ditu; horiek guztiak legeak eta beste bitarteko batzuk emango dizkio fisikoki, mentalki, moralki, espiritualki eta sozialki modu osasuntsuan eta askatasun- eta duintasun-baldintzatan gara dadin. Helburu horretarako legeak egiten direnean, funtsean kontuan hartuko da haurra bera izango dela interes gorena.

2



3

Haurrak jaiotzatik du izen bat eta nazionalitate bat izateko eskubidea.

Haurrak gizarte segurantzaren onurak jaso behar ditu. Osasun onarekin hazteko eta garatzeko eskubidea izango du; horretarako, haurrari nahiz amari zainketa bereziak eskaini beharko zaizkio, baita jaio aurreko eta ondorengo arreta ere. Haurrak elikadura, etxebizitza, jolasaldi eta mediku-zerbitzuak izateko eskubidea izango du.

4

5

Oztopo sozialen bat jasaten duen elbarritasun fisiko edo mentala duen haurrak haren kasu zehatzak eskatzen dituen tratamendu, hezkuntza eta zaintza bereziak jaso behar ditu.



**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IKASLEEKIN
EGITEKO LANA**

HAURREN ESKUBIDEEN HITZARMEN UNIBERTSALA

6

Haurrak, nortasuna osotasunean eta modu orekatuan garatzeko, maitasuna eta ulermena behar ditu. Ahal den guztietan, gurasoen babesean eta haien erantzukizunpean hazi beharko da, eta, beti, maitasun giroan eta segurtasun moral eta materialarekin. Salbuespen bereziren bat tarteko ez bada, adin txikiko haurra ez da amarengandik bereiziko. Gizarte eta autoritate publikoek familiarik gabeko haurrak edo bizirauteko bitarteko egokiak ez dituztenak bereziki zaintzeko obligazioa dute. Familia ugarietako seme-alaben mantenurako komeni da estatuaren edo bestelako diru-laguntzak familia horiei ematea.



8

Haurrak, egoera guztietan, babesa eta sorospena jasotzen lehenak izan behar dira.

9

Haurrak babestu egin behar dira mota guztietako abandonatze, krudeltasun eta esplotazioen aurrean. Ez da inolako salerosketan objektu izango. Hurrei ezin zaie utzi gutxieneko adin egoki bat izan baino lehen lan egiten; inolaz ere ez zaio utziko osasuna kaltetu edo garapen fisiko, mental edo morala eragotziko dion lanetan aritzen.

Arraza, erlijio edo bestelako bazterketak sustatzen dituzten praktiken aurrean babestu behar da haurra. Ulermen eta tolerantzia, herrien arteko adiskidetasuna, bakea eta anaitasun unibertsala aintzat hartzen dituen hezkuntza jaso behar du, eta jakin behar du bere energia eta gaitasunak hurkoaren zerbitzura jarri behar dituela.

10





**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**

PELIKULA HITZ BATEAN

Borobilean eserita irakasleak pelikula zer iruditu zaien galdetuko du eta partaide bakoitzak **hitz bat** erabiliz erantzun beharko du. Ikasleen adinaren arabera eta laguntza modura, arbelean adjektiboen zerrenda egin dezakegu guztion artean. Pelikula ikustera joan aurretik zineman animazioa egiteko erabiltzen diren modu desberdinez hitz egin genuen. Ikusi genituen adibideetatik zein teknika erabili dute Ma Vie De Courgette egiteko?



**PERTSONAIEN
DESKRIBAPENA**

Borobilean eserita jarraituko dugu. Ondorengo taula moduko gida erabili dezakegu pelikulako pertsonaia nagusien zerrenda egin eta nolakoak diren eta zer ezaugarri dituzten azaltzeko:

	<u>Itxura</u>	<u>Jarrera</u>	<u>Beste ezaugarri batzuk</u>
COURGETTE			
RAYMOND <i>polizia</i>			
ROSY <i>harrera-etxeko hezitzaile maitakorra</i>			
SR. PAUL <i>harrera-etxeko gizonezko irakaslea</i>			
MS. PAPINEAU <i>harrera-etxeko zuzendaria</i>			
SIMON <i>hasieran Courgetteekin portaera txarra daukan mutikoa</i>			
ALICE <i>kopeta-ilea begi gainean daukan neskato ilehoria</i>			
BEA <i>neskato beltza</i>			
JUJUBE <i>kopetan tiritatzen daukan mutikoa</i>			
AHMED <i>ile beltza daukan mutikoa</i>			
CAMILLE <i>Raymondekin bizitzera joango den neskatoa Courgetterekin batera</i>			
IDA IZEBEA			
EPAILEA			



**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**

GIDOIARI BURUZ

Irakasleak ondorengo galderak egin ditzake:

- 1. Zeintzuk dira zuen ustez pelikulak lantzen dituen gai nagusiak?**
- 2. Zein izan da gehien gustatu zaizuen eszena? Zergatik?**

Irakasleek bigarren galderari ematen dizkioten erantzunen arabera, taldean, guztion artean gai horiei buruz hitz egiten joango gara. Irakaslea galderak proposatuz joango da elkarrizketa sortu eta gidatzeko. Jarraian, laguntasuna eta familia kontzeptuei buruz taldean hausnarketa egiteko proposamenak aurkezten ditugu:

**ELKARRIZKETA SUSTATZEKO
PROPOSAMENAK**

Laguntasuna

- 1. Harrera-etxean bizi diren hurrek oso bizitza gogorak izan dituzte, hain urte gutxi izan arren. Hala ere, gizakiok egoera horietatik irten eta moldatzeko dugun gaitasuna erakusten digute. Aurrera egiteko eta ondo egoteko prozesu honetan, zein elementu edo bizipenek uste duzue dutela garrantzi berezia (adibidez, kalabazinengan)?**
- 2. Zer harreman mota esango zenukete dituela kalabazinek pelikulako beste pertsonaia hauekin?**
Camille, Simon, Ms. Papineau, Ahmed, Raymond, Rosy, ...
- 3. Zer osagai esango zenukete behar duela harreman batek laguntasun harremana izateko?¹**
- 4. Zer ekarpen egiten digu laguntasunak gizakioi?**
Zergatik dira guretzat hain garrantzitsuak harreman hauek?
- 5. Nola aldatzen da Kalabazinek eta Simonek duten harremana pelikulan zehar? Zein esango zenukete dela aldaketa honen inflexio puntua? Zer azalpen izan dezake Simonen jarrera aldaketak?²**
Noizbait izan duzue horrelako portaerarik edo antzekorik? Badakizue hau zergatik izan den? Zer uste duzue egin behar dela horrelakoetan egoera bideratzeko?
- 6. Laguntasunak zer sentimendu uste duzue biltzen dituela bere barnean? (Adibidez, maitasuna, zaintza, jeloskortasuna...)**
- 7. Askotan esaten da benetako lagunak esku bateko hatzekin zenbatu daitezkeenak direla. Ados zaudete esaera honekin? Zergatik?**



¹ Hemen sare sozialetako gaiarekin sartu gaitzke modu honetara sortutako harreman bat laguntasun harremana izan ote daitekeen galdetuz.

² Simonek erakutsi diezaguke pertsonak askotan ez garela dirudiguna edo ez garela modu bakar batekoak eta aurpegi asko izan ditzakegula.



**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**

**ARIKETA:
AMAIERA
DESBERDINAK**

Ikasle bakoitzak pelikularentzat beste amaiera bat pentsatu eta idatziko du. Ondoren guztion artean partekatuko ditugu azpimarratuz ideia berdin batetik abiatuta istorio batek zenbat aukera desberdin eman ditzakeen.




Familia

1. Courgetteren ama hil ondoren, nora eramaten dute haurra?
2. Zein da harrera etxearen funtzioa bertan bizi diren haurrentzat? Familia bat da? Bertan denbora tarte bat igarotzeko gune bat da soilik?
3. Pelikulan harrera etxean bizi diren haurrek, zer da bertan jasotzen dutena?
4. Zeintzuk dira beharrezko osagaiak norbait familia bezala ulertzeko?
5. Zer familia mota desberdin daude zuen ikasgelan?

Pelikulak izpide eman dezake ere adopzioei edo harrera-etxeen ezaugarri eta eginkizunei buruz hitz egiteko

ARIKETA: HAURREN ESKUBIDEEN HITZARMEN UNIBERTSALA

Pelikula ikustera joan aurretik, neska mutilei eskatu genien Haurren Eskubideen Hitzarmen Unibertsala kontuan izateko eta pentsatzeko bertan zein artikulua jorratzen diren. Erantzun bat izan daiteke "haurrek babestuak izateko duten eskubidea" lantzen duela pelikulak, hau da, 2., 6. eta 9. artikuluen arteko nahasketa. Ikasleei eskatuko diegu eskubide horrekin lotura izan dezaketen elementu edo egoerei mugikorrarekin argazkiak ateratzeko edo artikulua horiekin harremana izan dezaketen irudiak, notiziak, oharrak.... ekartzea. Aukera bat izan daiteke elementu guzti hauekin collagea osatzea eta ikasgelan jarraitutako lan prozesuko argazkiak atera baditugu ere berta sartzea.



Taldeko lan honi argazki bat atera eta nahi badugu, Giza Eskubideen Zinemaldiko antolakuntzara bidal dezakegu, zinema_gizaeskubideak@donostia.eus Donostiako Udaleko Giza Eskubideen sailera, hain zuzen.